

1.- Metano baldintza normaletan, gas egoeran dago.a) Zenbat molekula metano daude 5 litroko ontzi batean b.n.-etan? eta zenbat atomo aurkituko ditugu ?.
($1,32 \cdot 10^{23}$; $6,5 \cdot 10^{23}$)

2.- 3 litroko ontzi batean 4g nitrogeno dioxido daude 25°C -tan. Kalkulatu: a) Ontziaren presioa. b) Zenbat atomo dauden. c) Gasaren konposizio ehundarra. d) Tenperatura, ontzia berotzen badugu 1000 mmHg lortu arte.
(**0,7 atm; $1,57 \cdot 10^{23}$ atomo ; %30,43; %69,57 ;553,3K**)

3.- Gas ezezagun baten 5g-k 1,22L-ko bolumena betetzen du b.n.-tan Laginak 1,52 g nitrogeno ditu, gainontzeko guztia oxigenoa izanik. Kalkulatu: a) Gasaren masa molarra b) Gasaren formula enpirikoa eta molekularra.
(**91,75 g/mol; NO_2 ; N_2O_4)**)

4.-Kalkula ezazu nahasketa baten presio totala, 40g oxigenoz eta 49g nitrogenoz, osatuta dagoela eta 30°C -ko tenperaturan 25L-ko bolumena betetzen duela jakinda. Kalkula itzazu osagien presio partzialak. (**2,98 atm ;1,24 atm eta 1,74 atm**)

DATUAK: MASA ATOMIKOAK: C=12; H=1 ; N=14 ; O= 16. R= 0,082 atm.L/mol. K